

Bartolo Garmendia Garmendia

- Gaintzan jaio zen 1902/06/24an.
- Gaintzan hil zen 1984/11/01ean.
- Aita gazterik hil zitzairen eta, zaharrena zenez, etxeko ardura hartu behar izan zuen. Berandu ezkondu zen.
- Hiru ilarako soinua jotzen zuen.
- Bere kabuz ikasi zuen soinua jotzen.
- Ez dakite kanpoan ibiltzen zen soinua jotzen, baina etxean askotan jotzen omen zuen.
- Inguruko herrietako dorreetako erlojuak konpontzen zituen. Beste erloju motak ere bai, konpontzen zituen.

Bartolo Aierbe Urrestarazu

- Gaintzan jaio zen 1906/07/31n.
- Loiolan (Donostia) hil zen 1996/03/20an.
- Joxe Aierbe semeak idatzitakoa:
“Eguraldi txarra zenean, eliz atarian jotzen zutela esaten zuan. Esaten zuan, baitere, soiñua jotzeagatik gazteek ematen zioten txanponekin diruarekin, erositako soiñuarekin jotzen zuala.
Larraitzen ze soiñu klaserekin eta soiñu-jolea zein izaten zan ere esango zigun agian, baiña ori ez dakit.
Larraitzen izaten omen zan billera edo erromeria eta ara joaten, dantzara, inguruko gazteak. Billera ez dakit urte guztian izaten zan ala ez; baiña aitak esaten zuanez joaten zan bakoitzean ia doiñu bat ikasita bueltatzen omen zan etxera. Kustioa da, bere errian, Gaintzan, igandetan –negu partean seguru asko– ahoko soiñua jotzen omen zuan bertako gazteek dantzan egin zezaten.”
- Horrez gainera, bi liburu ere idatziak ditu: [Nere mundualdia](#) (1988, Auspoa-Etor) eta bigarren liburua, [Zaarrak berrituz](#) (1996, Auspoa-Sendoa)

Agustin Garmendia Garmendia

- Gaintzan jaio zen 1908/10/01ean.
- Legazpin hil zen 1996/01/03an.
- Gaintzako Martina Jauregiarekin ezkondua.
- Ikasketak Gaintzako eskolan eta Tolosako Sakramentinoetan egin zituen.
- Familiar musikarako joera handia zegoen arren, Sakramentinoetan ere izango zuen ikasteko modua.
- Lanbidea: Itsasondoko Pizarra fabrika lehenengo eta Patrizio Etxeberriaren lantegian gero. Dendaria ere izan omen zen.
- Gaintzan alkaterik ez zegoela eta, gerra garaian, alkate jartzeko eskatu zioten, eta onartu egin zuen, baina egun gutxi barru atxilotu zuten, norbaitek salatuta; fusilatze zegoela, ezagunen batek militarrekin izandako bitartekaritzari esker libratu zuten.
- Abesten ere oso ona omen zen eta bertsotan ere aritzen omen zen. Euskaltzale porrokatua. Lagunarteko gizona.
- Ahoko soinua eta hiru ilarako soinua jotzen zuen. Joan Marik dioenez, dultzaina ere jotzen omen zuen.
- Bere bi alabek, Marisolek eta Marianek, Josune Makibarrekin batera “Trio Itxaropen” taldea sortu zuten, eta 1967tik 1971 arte ibili ziren herriz herri kantari, nahiz eta ondoren ere emanaldi batzuk egin zituzten.

Jose Mari Garmendia Jauregi

- Gaintzan jaioa 1945/10/15ean; Agustinen semea.
- 7 edo 8 urterekin hasi zen dantza ikasten, eta txapelketa askotan sariak irabazi ditu; Esther Barandiaran zuen dantzarako bikotea.
- La Sallen ikasi zuen Lanbide Heziketa (tornularia).

Eusebio Garmendia Mendia

- Gaintzan jaio zen 1909/08/14an.
- Gaintzan hil zen 1974/01/28an.
- Ikasketak Gaintzako eskolan egin zituen.
- Soldadutza pasatu ondoren, gerrara eraman zuten, eta hiru urtez ibili zen frentean.
- Gaintzako “kaminoa” (errepidea) egin zutenean —zati bat gerra aurretik eta auzolanean, eta gainerako zatia gerra amaituta gero—, lanen kapataza edo arduraduna izan zen.
- 8 urtez Gaintzako alkatea izana.
- Hiru ilara eta 48 baxu zituen soinua jotzen zuen.
- Larraitzen, Gaintzan, Itsasondon, Altzagan, Altzagaraten... festetan han izaten zen bere soinuarekin. Inguruko herri askotan ere bai.
- Lagunarteko gizona, eta lagun asko zituena.

Francisco Telleria Irastorza

- Gaintzan jaio zen 1937/02/05ean.
- Lazkaon hil zen 2004/08/14an.
- Gaintzako eskolan ikasi zuen lehenengo eta Beasainen, La Sallen, jarraitu zuen.
- Ordiziako Gurrutxagarekin eta Manuel Illarramendirekin ikasi zuen musika. Ahal zuena egiten omen zuen, lana zela eta denbora gutxi zuelako, baina musika eta bertsoak oso gustukoak omen zituen.
- Hainbat urtetan, asko ibilia herriko festa eta ospakizunetan: despedidak, Gabonak, Santa Ageda..., eta inguruko herrietan ere bai.
- Edozein ospakizunetan beti han izaten omen zen bere soinuarekin.
- Jubilatu ondorengo 9 urteetan asko gozatu zuen musikarekin eta bertsoekin.
- Asko idatzi omen zuen; askotan, gauean esnatu eta aritzen omen zen idazten, baina familiak dauzka haren idatziak.

Alaba: Aloña

- 1973an jaioa Lazkaon.
- Enpresa-zientziak ikasi zituen.
- Solfeoa, pianoa, harmonia... ikasia.
- S. Prudentzio elizako organista izana.
- Hainbat ezkontzatan eta jotzen zuen.

Jexux Telleria Irastorza

- Gaintzan jaio zen 1939/03/30ean.
- Gaintzako eskolan ibili zen lehenengo eta Beasaingo La Sallen ondoren.
- Bere kabuz ikasi zuen bateria jotzen eta trikitixa jotzen ere bai zertxobait.
- Beasaingo Txanbo txistulariarekin ikasi zuen musika pixka bat eta txistua jotzen ere bai, baina utzi egin zuen gerora.
- 14 bat urte daramatza, Larraizko Jexuxekin batera, “Jexuxen Jazpana” taldean, inguruko herri guztietan festa eta ospakizunak alaitzen.
- Alaba hasi zen ikasten, baina utzi egin zuen.
- Bilobak omen dauka musikarako irrika handia.

Fidel Dorronsoro Garmendia

- Gaintzan jaio zen, 1948/03/21ean.
- Bere kabuz ikasi zuen soinua jotzen.
- Urte batzuk geroago, Iker Goenagarekin aritu zen ikasten.
- Etxean aritzen omen da ahal duena ikasten, bere alabak dioenez.